# Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA | JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
EGUNA / FECHA: 15/06/2016
HASIERA / INICIO: 21:00
AMAIERA / FINAL: 21:15

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATE ORDEA/ALCALDE EN FUNCIONES
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate orde andrea buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.
Alkate orde andrearen aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sra. Alcaldesa en Funciones y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.
De orden de la Sra. Alcaldesa en Funciones dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Batzordeak aho batez onartu zuen 2016ko ekainaren 1eko saioko akta.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 1 de junio de 2016.

**2.- Tokiko elkarteen diru-laguntzak.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Busturiko Herri Erakundeen Erregistroan izena emanda dauden elkarteen gastu arruntetarako diru-laguntzak banatzea. Honako diru-laguntzak ematea erabaki zen:

**2.º.- Subvenciones a asociaciones locales.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó proceder al reparto de las subvenciones para gastos ordinarios de las asociaciones inscritas en el Registro de Entidades Populares de Busturia y conceder las siguientes subvenciones:

| | |
|---|---|
| Harri Berri Elkartea | 2.000,00 € |
| Busturia Txirrindulari Taldea | 4.350,00 € |
| Busturia Kirol Taldea | 2.350,00 € |
| Irrintzi Alai Dantza Taldea | 1.900,00 € |
| Atxurkulu Emakumeen Elkartea | 650,00 € |
| Matxinada Elkartea | 225,00 € |
| Hirugarren Adineko Elkartea | 600,00 € |
| AMPA del C.P. José María Ucelay | 1.900,00 € |
| Kardio Kick Boxin Busturlagun | 225,00 € |
| Paresi Pilota Elkartea | 150,00 € |
| Eguzki begira | 150,00 € |
| Añebustin-Anetu | 175,00 € |

Era berean, erabaki zen elkarteei jakinaraztea oso litekeena dela 2017an ezin izango zaiela halako diru-laguntzei eutsi, Udalaren diru-sarrerak modu nabarmenean jaitsi baitira 2016an (eta, hala ere, ez dira diru-laguntzak murriztu), eta oso litekeena da datorren urtean ere jaisten jarraitzea, eta horrek ezinezkoa egingo du Udalak egungo diru-laguntzak ematen jarraitzea.

Asimismo se acordó informar a las asociaciones de que estas cantidades es muy probable que no puedan mantenerse en 2017, ya que los ingresos del Ayuntamiento se han reducido de manera importante durante este año 2016 (a pesar de lo cual no se han reducido las subvenciones) y es previsible que continuen descendiendo el próximo año, lo cual imposibilitará que el Ayuntamiento pueda seguir concediendo ayudas por el importe actual.

**3.- Paresiko probalekua.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Urre, SA enpresak aurkeztutako aurrekontua onartzea, 9.524,74 €-koa, Paresiko probalekua birmoldatzeko.

**3.º.- Probadero de Paresi.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el presupuesto presentado por la empresa Urre, S.A., para la reforma del probadero de Paresi y que asciende a un importe de 9.524,74 €.

| 4.- Memoria historikoari buruzko beka.- | 4.º.- Beca sobre memoria histórica.- |
| --- | --- |
| Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaizkion Eusko Ikaskuntzak Busturian Gerra Zibila ikertzeko esleitutako bekaren ondorioz, Udal honek finantzatutakoa, sortutako arazoak; izan ere, beka esleitu ondoren, J. A. Z. katedradunaren (lanen zuzendaria izango zen) gutuna jaso da Udaletxean, eta bertan adierazten du Eusko Ikaskuntzaren hautaketa-epaimahaiaren irizpidearekiko ezadostasuna, bere iritziz hautatutako pertsonak ez baitu halako lana aurrera eramateko besteko euskararen ezagutza-mailarik, eta hori zen betebeharretako bat.<br>Hori ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Eusko Ikaskuntzara jotzea, Udal honekin izenpeturiko hitzarmenean aurreikusi bezala Jarraipen Batzordea bil dadin, Udal honetako hiru talde politikoen ordezkaritzarekin. | La Junta de Gobierno Local fue informada de los problemas surgidos como consecuencia de la adjudicación, por parte de Eusko Ikaskuntza, de la beca de investigación sobre la Guerra Civil en Busturia, financiada por este Ayuntamiento, dado que, tras la adjudicación de la misma, se ha recibido en este Ayuntamiento una carta del catedrático J. A. Z. (que iba a dirigir el trabajo), en el que manifiesta su discrepancia con el criterio del tribunal de selección de Eusko Ikaskuntza, puesto que, en su opinión, la persona elegida no tiene suficiente nivel de conocimiento de euskera para poder realizar este trabajo, uno de cuyos requisitos era que se realizase en este idioma.<br>A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dirigirse a Eusko Ikaskuntza solicitando que, tal y como está previsto en el convenio suscrito con este Ayuntamiento, se constituya y se reúna la Junta de Gobierno Local de Seguimiento en la que estarán representados los tres grupos políticos de este Ayuntamiento. |
| **5.- Kontratua Orangerekin.-** | **5.º.- Contrato con Orange.-** |
| Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Orange España, SAU enpresak proposatutako kontratua onartzea, Altamirako ur-biltegiko lursail bat alokatzeko, telefonia mugikorreko ekipoa instalatzeko, 1.037,83 €-ko urteroko errentarekin. | La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar el contrato propuesto por Orange Espagne, S.A.U., para el alquiler de un terreno en el depósito de aguas de Altamira para la instalación de un equipo de telefonía móvil, y con una renta anual de 1.037,83 €. |
| **6.- Txosnak jartzeko araudia.-** | **6.º.- Normativa sobre colocación de txosnas.-** |
| Busturiko herriko jaietan txosnak jartzeko dagoen araudia aztertuta (2014ko ekainaren 18an onartutakoa eta gerora moldatutakoa), Batzordeak aho batez erabaki zuen hori aldatzea, honako arau hauek txertatzeko:<br>1. Elkarte bat txosnetako zozketatik kanpo geratzen denean, lehentasuna izango du hurrengo urteko esleipenean.<br>2. Txosnen kokapena txandakakoa izango da urtetik urtera elkarte bakoitzarentzat. | Examinada la normativa existente sobre la colocación de txosnas en las fiestas patronales de Busturia (aprobadas el 18 de junio de 2014 y modificadas posteriormente), la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó cambiarlas para introducir las siguientes reglas:<br>1. Cuando una asociación quede eliminada en el sorteo de las txosnas, tendrá preferencia en la adjudicación de las del año siguiente.<br>2. Las ubicaciones de las txosnas rotarán entre las asociaciones de un año para otro. |
| **7.- Jose Maria Ucelay herri-ikastetxeko Guraso Elkartearen idazkia.-** | **7.º.- Escrito del A.M.P.A. del C.P. José María Ucelay.-** |
| Jarraian, Jose Maria Ucelay Herri Ikastetxeko Guraso Elkartearen idazkia irakurri zen, zeinaren bitartez 350 €-ko diru-laguntza eskatzen duen ekainaren 4an ospatuko den eskolako jairako musika-emanaldirako. Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaria onartzea. | A continuación, se dio lectura al escrito presentado por la Asociación de Madres y Padres de Alumnos del Colegio Público "José Maria Ucelay", mediante el cual solicitan una ayuda económica de 350 € para la actuación de la música disco en la fiesta de la escuela celebrada el día 4 de junio, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a esta petición. |

| 8.- I. A.ren idazkia Eguzki Lore taberna-jatetxeari buruz.- | 8.º.- Escrito de I. A. sobre Eguzki Lore taberna-jatetxea.- |
|---|---|
| Ikusirik Udal Arkitekto Aholkulariak emandako txostena Eguzki Lore Taberna-Jatetxea establezimenduko jabeek egi-niko eskaerei buruz (atzeko patioa hesitzea eta makina elika-gai-banatzaileak jartzea), Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen horretarako baimena ematea Arkitektoa-ren txostenean ezarritako baldintzen arabera (txostena hela-razi beharko zaio eskatzaileari), bereziki, hesitzea Arau Sub-sidiarioen 33. artikuluan baimendutakoaren arabera egitea eta makinek ez oztopatzea oinezkoak. Bestalde, erabaki zen makinek behar bezalako isolamendu elektrikoa izan beharko dutela, eta horien funtzionamendu okerraren ondorioz hiru-garrenek jasan litzaketen kalteak soilik eskatzaileak hartuko dituela bere gain. | Visto el informe emitido por el Arquitecto Asesor Municipal sobre las peticiones realizadas por los titulares del establecimiento Eguzki Lore Taberna-jatetxea (vallado del patio posterior y colocación de máquinas expendedoras de alimentos), la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizarlas con las condiciones establecidas en el informe del Arquitecto (del cual deberá darse traslado al solicitante), en particular que el cierre se realice en las formas autorizadas por el artículo 33 de la Normas Subsidiarias y que las máquinas no obstaculicen el paso de peatones. Por otro lado también se acordó que las máquinas deberán encontrarse en las debidas condiciones de aislamiento eléctrico, y que la posible responsabilidad a terceros como consecuencia del mal funcionamiento de ellas corresponde exclusivamente al solicitante. |
| **9.- E. G.ren idazkia, Ibilaldiari buruz.-** | **9.º.- Escrito de E. G. sobre Ibilaldia.-** |
| Jarraian, E. G.k Mungiako Larramendi ikastolaren izenean aurkeztutako idazkia irakurri zen, zeinaren bitartez salmenta-rako mahaia jartzeko baimena eskatzen duen San Kristobal eta Santa Ana jaietan, baita irailaren 24ko Nekazaritza Ekolo-giko Jaialdian ere, 2017ko Ibilaldirako dirua biltzeko helbu-ruarekin.<br>Hori ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera onartzea. | A continuación, se dio lectura al escrito presentado por E. G., en representación de la Ikastola Larramendi de Mungia, mediante el cual solicita permiso para poner una mesa de venta en fiestas de San Cristóbal y Santa Ana y el día de la Feria de Agricultura Ecológica del día 24 de septiembre, con objeto de recaudar fondos para el Ibilaldi de 2017.<br>A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a esta petición. |
| **10.- A. E. G.en idazkia.-** | **10.º.- Escrito de A. E. G.-** |
| A. E. G.en idazkia ikusirik, Axpe auzoan hainbat txakur solte ibiltzen delako kexa agertzen duena, horietako batzuk arraza arriskutsukoak direlako eta jendea izutzen dutelako, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen txakurren ja-beari idazkia igortzea, behar bezalako neurriak har ditzan eta maskota behar bezala lotuta eramateko indarrean den arau-dia bete dezan. | Visto el escrito presentado por A. E. G. en el que manifiesta su queja de que en el barrio de Axpe suele haber unos perros sueltos, algunos de raza peligrosa, e intimidan y asustan a la gente, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dirigir un escrito al propietario, para que adopte las medidas oportunas y cumpla la normativa vigente de llevar debidamente atado a su mascota. |
| **11.- Muruetako Udalaren hitzarmena.-** | **11.º.- Acuerdo del Ayuntamiento de Murueta.-** |
| Tokiko Gobernu Batzordeari Muruetako Udalak igorritako idazkiaren berri eman zitzaion, zeinetan 2016ko apirilaren 18ko osoko bilkuraren erabakia jakinarazten duen: Bizkaiko Foru Aldundira jo dute Busturiko Plan Nagusiaren behin be-tiko onarpenean 1987ko desanexio-aktan islatutako mugak jaso daitezen, Busturiko Udalarekin egindako hitzarmenean Etxetxubarri eta itsasadarraren arteko muga berriak baino ez baitira hitzartu, eta ez Etxetxubarri eta Errigoitiren arteko mugaren gainerakoan.<br>Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen:<br>1.- Muruetako Udalaren nahia gaitzestea, muga-aldaketak | La Junta de Gobierno Local fue informada del escrito remitido por el Ayuntamiento de Murueta en el que comunican el acuerdo plenario adoptado el 18 de abril de 2016, según el cual se dirigen a la Diputación Foral de Bizkaia para que en la aprobación definitiva del Plan General de Busturia, se recojan los límites reflejados en el acta de desanexión de 1987, ya que en el acuerdo al que se llegó con el Ayuntamiento de Busturia, únicamente se han pactado nuevos límites entre “Etxetxubarri” y la ría, pero no en el resto de la frontera entre “Etxetxubarri” y Errigoiti.<br>La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó: |

| Euskara | Castellano |
|---|---|
| eragiten ez dion ingurunean orain artekoek indarrean jarraitzen dutela irizten zaiolako, eta horiek Institutu Geologiko Nazionalak egiaztatu dituelako.<br>2.- Erabaki honen berri ematea Muruetako Udalari eta Bizkaiko Foru Aldundiari. | 1.- Rechazar la pretensión del Ayuntamiento de Murueta, por considerar que en la zona que no está efectada por el cambio de límites siguen vigentes los existentes hasta la actualidad y que han sido objeto de comprobación por el Instituto Geológico Nacional.<br>2.- Comunicar este acuerdo al Ayuntamiento de Murueta y a la Diputación Foral de Bizkaia. |
| **12.- Hirigintza-baimenak.-** | **12.º.- Licencias urbanísticas.-** |
| Emandako txostenak ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen honako hirigintza-baimenak ematea, txostenetan ezarritako baldintzen mende egongo direnak, eta horien edukiaren berri eskatzaileei eman beharko zaie:<br>1.- A. A. L. (32/16 txost.), teilaberritzerako, San Kristobal auzoko 70. zenbakian, 16.600,00 €-ko aurrekontuarekin.<br>2.- I. L. R. (43/16 txost.), leihoak aldatzeko, Axpe auzoko 35. zenbakian, 3. erdia, 4.304,53 €-ko aurrekontuarekin.<br>4.- G. R. O. (44/16 txost.), erakusmahai eta alderantzizko barra inguruko hormetan frisoa jartzeko, apalategia prestatzeko eta ipintzeko San Bartolome auzoko 35. zenbakian, Madariaga Dorrea, 1.200,00 €-ko aurrekontuarekin. | La Junta de Gobierno Local, vistos los informes emitidos, acordó, por unanimidad, conceder las siguientes licencias urbanísticas, que quedan sometidas al cumplimiento de las condiciones establecidas en el mismo, de cuyo contenido se deberá dar traslado al solicitante:<br>1.º.- A. A. L. (Expte. 32/16), para retejo, en el barrio de San Cristóbal n.º 70, con un presupuesto de 16.600,00 €.<br>2.º.- I. L. R. (Expte. 43/16), para sustitución de ventanas, en el barrio de Axpe n.º 35-3.º Ctro., con un presupuesto de 4.304,53 €.<br>3.º.- G. R. O. (Expte. 44/16), para colocación de friso en paredes de zona de mostrador y contrabarra, preparar y colocar estantería, en el barrio de San Bartolomé, 35, Torre Madariaga, con un presupuesto de 1.200,00 €. |
| **13.- Landa-bideak erabiltzeko baimena, egurra ateratzeko.-** | **13.º.- Licencia de utilización de caminos rurales para la saca de madera.-** |
| Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen egurra ateratzeko landa-bideak erabiltzeko baimena ematea honako hauei:<br>1.- Maderas Lejarcegui, SL (2/16 txost.), Goikoetxe mendiari dagokiona, 10. poligonoko 41. lursaila, Birginaristi mendibidea erabiliz, 387 estereotan, eta Udalari jakinarazita noiz hasiko den egurra ateratzen. | La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la utilización de caminos rurales para la saca de madera a:<br>1.º.- Maderas Lejarcegui, S.L. (Expte. 2/16), correspondiente al monte "Goikoetxe", parcela 41 del polígono 10, utilizando la pista de Birginaristi, en un número de 387 estéreos, debiendo comunicar al Ayuntamiento el inicio de la saca. |
| **14.- M. E. U. T.ri gutuna.-** | **14.º.- Carta a M. E. U. T.-** |
| Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen gutuna igortzea M. E. U. T. Bizkaiko Foru Aldundiko Zerbitzu, Udal Harreman eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiko laguntza juridiko ataleko abokatu andreari, hainbat ohar juridiko planteatzeko 2016ko martxoaren 16ko haren Txostenari dagokionez, bere zuzendariaren (J. G. L. jauna) eta Diputatuaren (I. B. O. andrea) oniritziarekin Gobernu Kontseiluari igorritakoa, 2016ko martxoaren 15eko erabakiaren oinarri juridiko gisa, San Antonioko enklabearen ezabaketa-prozedurari ekiteko eta, aldi berean, Busturiko udal-barrutiaren mugak aldatzeko eta bere barrutiaren zati bat banatzeari ekiteko, Sukarrietaren alde. | La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dirigir una carta a la atención de Dª M. E. U. T., letrada de la Sección de asistencia jurídica de la Dirección General de Servicios, Relaciones Municipales y Emergencias de la Diputación Foral de Bizkaia, planteándole una serie de consideraciones jurídicas respecto a su Informe de 10 de marzo de 2016, que fue remitido, con el visto bueno de su director (D. J. G. L.) y de la Diputada (D.ª I. B. O.), al Consejo de Gobierno, como fundamento jurídico de su acuerdo de 15 de marzo de 2016, para iniciar el procedimiento de ejecución de la supresión del enclave de San Antonio, y a la vez para alterar el término municipal de Busturia y proceder a la segregación de parte de su término municipal a favor de Sukarrieta. |

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde,

Idazkaria/El Secretario,

Fdo: Aitor Aretxaga Telletxea

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez